

Testua: **JOXAN ORMAZABAL**

Irudiak: **IRAIA OKINA**

Azal gogorrean egina

32 orrialde, koloretako irudiekin. 21x30 cm.

Hizkuntza hauetan:

-Euskara: *"Zirkua amets"* (Faktoria K-Pamiela)

ISBN 978-84-7681-578-6

-Gaztelania: *"Sueños de circo"*

ISBN 978-84-96957-57-2

-Galegoa: *"Soños de circo"*

ISBN 978-84-96957-56-5

Prezioa: 14 €

## ZIRKUA AMETS

**Aspalditik ari zitzaidan amona esaten egun batean zirkua ikustera eramango ninduela. Eta atzo arratsaldean, pozez gainezka joan ginen amona eta biok tren geltokira. Ordu erdiko bidaia geneukan hiriburura. Eta hiriburuan, bostetan, zirkua! Trenean sartu eta elkarren ondoan eseri ginen amona eta biok. Eguzki izpi batzuk sartzen ziren leihotik eta kilima goxo-goxoak egiten zizkiguten...**

### II. ETXEPARE BEKA 2008, HAURRENTZAKO EUSKARAZKO ALBUM IRUDIDUNETARAKO

*"Zirkua amets"* bidaia bikoitza baten istorioa da: benetako bidaia eta irudimenezko bidaia. Ezinezkoa ere posible den mundura baterako bidaia, eta gero itzulerako bidaia gure mundura. Liburu honek esna amets egiteko aukera ematen du...

Pertsonaia nagusiek –amona eta iloba- abentura zoragarri bat hasiko dute, eta neskatoarentzat abentura fantasiako amets bihurtuko da. Liburuak haurrentzako mundu erakargarrira garamatza: zirkuaren mundu magikora. Amets bat beste amets baten barrenean, eta nahasian aterako dira malabaristak eta pailazoak eta elefanteak lainoz eginak, eta hezur-haragizko ikusleak. Amets betea, une batez amets gaizto ere bihurtuko dena...

Joxan Ormazabal e Iraia Okinaren lanari II. Etxepare Beka eman zitzaion 2008. urtean (Euskararen Nafar Institutuak emana), haurrentzako euskarazko album irudidunak sortzeko proiektu hoberena zelakoan. Epaimahaiak -Manu Lópezek, Elena Odriozolak, Agurtzane Villatek eta Xabier Etxanizek osatua- *Zirkua amets* liburuaren egitura borobila nabamendu zuen, maisuki heltzen baitio haurren beldurren gaiari.


Estetikaren ikuspuntutik, istoeria eszenatoki minimalistan gertatzen da. Koloreak leunak eta finak dira, ipuinaren ametszko mundua adierazten dutenak.

#### JOXAN ORMAZABAL (Tolosa, Gipuzkoa, 1948)

Idazle eta itzultzailea. Magisterioa ikasi eta hamar urtez aritzen irakasle. Garai hartan haurrentzako ipuinak idazten hasi zen, umorearen eta fantasiearen zertzeladak nabarmentzen diren ipuinak. Geroago, Donostiako Elkar argitaletxean hasi zen lanean. Haurrentzako euskarazko liburuak argitaratu ditu, hogueitik gora, zabalkuntza handia izan dutenak Euskal Herrian.

#### IRAIA OKINA (Durango, 1980)

Arte Ederretan lizentziatua. Estilo "iradokitzaile eta fina" du. Haren lanen erakusketak egin dira arte-gela bat baino gehiagotan. Irakasle lanaz, albumetako irudiak egin ditu euskal argitaletxe batzuentzat. 2006an argitaratu zuen bere lehen lana. Harrezkerotik bete-betean ari da arte-lanean.



- **Gaia:** ametsetako kontakizuna; zirkua; bidaiak
- **Adin egokia:** 7 urtetik aurrera
- **Nabarmentzeko datuak:** Euskarazko Album Irudidunentzako II. Etxepare Beka